



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 22a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru lege proposamena, lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Foru Lege proposamena, produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (8. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzekoa atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideen arloan. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (9. or.).
- Lege proposamena, Aurrezki kutxen eta haien elkarte nahiz batasunen araubidea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan toki entitateekin, Nafarroako Foru Komunitateko garraio-bide kolektiboaren erabilerarako. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala motel ditzan Navarra Arena kiroldegiko obrak, eta Sanferminetako Museoari buruzko jarduketa oro gelditu ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdatu gabeko eskumenak eskualdatzeko prozesuaren burutzea negoziatu dezan Estatuarekin. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ez dezan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren igoera aplikatu 2010eko uztailaren 1etik aitzina. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait politikaren egiturazko berrorientazeari ekin diezaion, industria-jardueraren finantzaketa aktibatze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.2.b) artikulua indargabetu dadin sustatu dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Ekoizpen zentroetan eraldaketak egitea oso errotuta dago betidanik Nafarroan, eta goranzko joera duen jarduera da; izan ere, landa eremueta-ko familiek, batez ere nekazariak eta abeltzainak, beren errentak dibertsifikatzeko eta osatzeko beharra izaten dute.

Beharrezkoa da nekazaritzako ustiatzeietan egiten diren nekazaritzako elikagaien arloko ekoizpenak arautzea, araudi horrek ukitzen dituen enpresak zehaztea eta beharrezkoak diren baldintzak ezartzea enpresa ekoizle-eraldatzailea izan ahal izateko, hori ekoizle-eraldatzaileen eta kontsumitzaileen mesederako izanen baita.

Foru lege honek aukera emanen die ustiatzei txiki eta ertainei –Nafarroako gehienak halakoak dira– beren jarduera nagusiaz gain beste jarduera osagarri bat garatu ahal izateko. Hala, abeltzaintzako edo nekazaritzako ekoizpena jarduera nagusizatuz izateaz gain, produktu horiek eraldatu eta merkaturatzei eratorritako balio erantsia gehitzen zaio.

Foru lege honen xedea da, halaber, abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiatzeien diru iturriak dibertsifikatzea, halako moduz non bertan arautzen diren jarduerak ustiatzeien errentak handitu eta sektorea bideragarriagoa egiten duten.

Foru lege honek ahalbidetuko du lehen sektoreak jarduera garrantzitsua izaten jarraitzea gure erkidegoan. Halaber, ahalbidetuko du jarduera horrek landa eremuko populazioaren sektore garrantzitsuen jarduera nagusi izaten jarraitzea, eta, ondorioz, jendea herrietan geratzea eta ingurumena zaintzea.

1. artikulua. Helburua eta xedeak.

Foru lege honen helburua da Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako nekazaritzako elikagaien zuzeneko salmenta, prestaketa eta produkzioa arautzea eta sustatzea.

Hauek dira foru lege honen helburuak:

a) Nekazaritzako egiturak hobetzea, nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi diren pertsonentzat errenta duinak eta kontsumitzaileentzat prezio bidezkoak lortzeko.

b) Nekazaritzako, abeltzaintzako edota elikagaien ustiatzei edo enpresa bideragarriak eta iraungarriak sortzea eta sustatzea.

c) Ziurtatzea lehenengo sektoreko ustiatzeien jarraipena, landa inguruneke garapen ekonomikoaren oinarritzko tresna baitira, eta tokiko baliabideei lotuago dauden sistemak mantentzea, ahalik eta pertsona gehienek iraun dezaten familia-nekazaritzaren esparruan.

d) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeien biziraupena ahalbidetuko duen balio erantsi gehigarri bat lortzeko aukera ematea.

e) Enplegua sortzea, nekazari gazteak jarduerara horretan hastea eta enpleguaren egonkortasuna erraztea.

f) Gure nekazariak eta abeltzainak lehiatu ahal izatea araudi hau aspalditik duten Europako beste erkidegoetako baldintza beretan.

g) Produktu "berezituen" aukera bat sortzea, haien kalitateari, osasungarritasunari eta onargarritasunari begira, gizartean gero eta gehiago baloratzen den merkatua asetzeko.

h) Merkaturatze-zirkuitu laburrak eta zuzenak sustatzea, ekoizlearen eta eroslearen aprobetxamendu zuzena ahalbidetze aldera, produktu horien lekualdatze-, bitartekaritza- eta merkaturatze-gastuen murrizketaren ondorioz.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Legearen aplikazio eremua da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpenen antolamendua.

3. artikulua. Lurralde eremua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa izanen da eta aplikatuko zaie, hain zuzen, Nafarroako Ustiategien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei.

4. artikulua. Definizioak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako ekoizpena da:

a) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuk manipulatu eta eraldatzeko jarduera, Nafarroako Ustiategien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek eginikoa, soilik ustiategi horietan lortutako lehengaietatik abiatuta.

b) Salmenta zuzena: merkataritzako jarduera, zeinetan ez baitago ekoizle-eraldatzailearen eta kontsumitzailearen arteko bitartekaririk.

5. artikulua. Beren produktuak eraldatzen dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek bete beharreko baldintzak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien titularrek ondoko baldintzak bete beharko dituzte bere produktuak eraldatu, egin eta zuzenean saldu nahi badituzte:

a) Nafarroako Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan inskribaturiko ustiategi baten titular izatea.

b) Instalazioak irekitzeko lizentzia eta jarduera lizentzia izatea, baldin eta 4/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera beharrezkoa bada.

c) Eraldatutako produktu guztiak kasuan kasuko nekazaritzako ustiategikoak izatea.

d) Ustiategiek betetzea indarrean dagoen legerian Nekazaritza Politika Bateratuko laguntza zuzenak jasotzen dituzten nekazariarentzat ezarritako baldintzak, kudeaketari eta nekazaritzako eta ingurumen arloko baldintza egokiei dagokienez.

6. artikulua. Identifikazioa, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea.

1. Identifikazioaren, elikagaien segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak bete beharko dituzte nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien titularrek, baldin eta salmenta zuzenari edo beren produktuen eraldaketari lotutako ustiategien parte izan nahi badute.

2. Produktuen izaeraren eta indarrean dagoen legeriaren arabera, gutxienez ere ondoko informazioa eman beharko da ontziratutako produktuen etiketan, aurkezpenean eta publizitatean:

a) Izendapen komertziala.

b) Pertsona arduradunaren nortasuna eta helbidea, produktuaren jatorria, izaera, osagaiak eta, hala balitz, gehitu zaizkion gehigarriak.

c) Kalitatea era bereizgarriak, halakorik badu.

d) Produktua erabiltzeko edo kontsumitzeko gomendatutako epea, ohartarazpenak, aurreikus daitezkeen arriskuak, erregelamendu bidez ezarritako erabilera-debekuak eta, kasua bada, ekoizpen-data.

e) Fabrikazio lotea eta produktuaren kontserbazio egokirako beharrezkoak diren jarraibideak.

3. Soltean saltzen diren nekazaritzako produktuek eta elikagaiek identifikazio-agiri bat eraman beharko dute berekin, eta bertan jasoko da, gutxienez, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan zehazturikoa.

7. artikulua. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien segurtasunaren printzipioa.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak dira ekoizten eta prestatzen dituzten produktu guztien segurtasunaren arduradun, eta, ondorioz, zaindu behar dute erabili eta ekoizten dituzten produktu guztiak kaltegabeak direla. Zehazki, garatzen duten jarduerari aplikatzekoa zaion araudian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte beren produktuen ekoizpenaren, eraldaketaren, ontziratzearen eta merkaturatzearen fase guztietan.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek izan beharko dituzte une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako autokontrol sistemak, garatzen duten jardueraren arabera.

8. artikulua. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien trazabilitatea.

1. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien trazabilitateak berekin dakar haien prozesu osoa jarraitu ahal izatea, ekoizpenaren, eraldaketaren, ontziratzearen eta merkaturatzearen fase guztietan; horrek hartzen ditu, halaber, produktuaren biltegiratzea, garraioa, salmenta eta edonolako esku-aldatzea, doakoa nahiz kostu bidezkoa. Gaitasun hori zabaldu behar da osagaietara, lehengaietara, gehigarrietara eta produktu horri eranstekoak zaizkion edo erantsi ahal zaizkion substantzietara.

2. Trazabilitatea autokontrol-sistemen osagaie-tako bat da, eta, hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritzako edota elikagaien arloko enpresa guztiak behartuta daude trazabilitatea ezartzera elikakatearen etapa guztietan, prozedura egoki, ulergarri eta ziurtagarrien bidez. Trazabilitate-prozedurek ahalbidetzen dute edozein unetan ezagutu ahal izatea, sortutako informazioaren bidez, zein diren produktu eta lehagaien hornitzaileak eta zein enpresa hornitu diren.

3. Nekazaritzako ustiatuekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek kontrolerako zerbitzu ofizialen eskura jarriko dute trazabilitate-sistemari buruzko informazio guztia, bai eta sistema horretatik eratorritako edo sistema horrek sorturiko informazioa ere.

9. artikulua. Salmenta zuzenaren motak.

Ekoizleek hiru baimen-araubideren artean hautatu ahalko dute, osasun eta erregelamendu arloan:

1. Salmenta zuzena: egoera horretan daude ustiatuegietako titularrak, baldin eta beren produktua azken kontsumitzaileari saltzen badiote, bai ustiatuegian bertan bai Nafarroako Foru Komunitateko nahiz autonomia erkidego mugakideetako merkatu eta azoketan.

2. Produkzioaren zati bat azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea eta beste zati bat bitartekari baten bidez saltzea. Aukera hau osasun-erregistrotik salbuetsita egonen da.

3. Produkzio osoaren salmenta zuzena, Euro-par Batasunean saltzeko osasun baimenarekin.

10. artikulua. Salmenta zuzena.

1. Salmenta zuzena egiten duten nekazaritzako ustiatuegietan lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

a) Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, Europako araudi indardunari jarraikiz.

b) Higienearen printzipio orokorrak ziurtatuko dituzte eta, kasua bada, ekoizten duten produktua- ren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla ere bai.

c) Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian izanen dute, edo, kasua bada, higiene-jardunbide egokien gida bat (GPCH).

d) Ekoizpen osoa merkaturatuko dute azken kontsumitzaileari zuzenean salduta, azoketan, ekoizpen zentroaren gertuko ingurunean, 853/2004 (EE) Erregelamenduko 1. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letrak xedatzen duenarekin bat.

e) Ez dago salmentarako kopuru-mugarik.

2. Salmenta zuzeneko ustiatuegi bakoitzak bere jarduerari buruzko aitorten bat eginen du, eta aitorten honen edukia erregelamenduz garatuko da.

11. artikulua. Osasun-erregistrotik salbuestea.

Osasun-erregistrotik salbuetsita dauden nekazaritzako ustiatuegietan lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izan- nen dituzte:

a) Jarduera bermez garatzeko beharrezkoak diren ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko baldintzak beteko dituzte, Europako araudi indardunari jarraikiz.

b) Higienearen eta osasungarritasunaren printzipio orokorrak ziurtatuko dituzte eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla ere bai.

c) Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian jarriko dute, edo, kasua bada, higiene-jardunbide egokien gida bat (GPCH).

d) Txikizkako merkataritzako establezimenduei egitea salmentaren zati bat, elikagaien segurtasunari buruzko Europako berariazko araudiak ezarritako baldintzak errespetatuz.

12. artikulua. Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiatuegietan salmenta zuzena egiteko bete beharreko baldintzak.

1. Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiatuegiak ondoko baldintzak bete beharko ditu gutxienez ere, 10. artikuluko lehenengo idatz-zatian jasotzen den salmenta zuzena egiteko:

a) Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, araudi indardunari jarraikiz.

b) Ziurtatzea higiearen printzipio orokorrak eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berriazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla.

c) Abian jartzea arrisku eta kontrol gune erabakigarri azterketari (APPCC) buruzko sistema bat, edo, kasua bada, higie-jardunbide egokien gida bat (GPCH).

d) Osasun-erregistroak abalaturako marka izatea.

e) Produktuak Europar Batasunean merkaturatu ahal izatea.

2. Osasun-erregistroa izan behar duen ustiategi bakoitzak eskabide bat egiten du, dagoen ereduaren arabera.

13. artikulua. Nekazaritzako ustiategiak lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresen erregistroa.

Nekazaritzako ustiategiak lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak, beren ustiategietan sorturiko lehengaiak egiten dituzten nekazaritzako elikagaiak merkaturatzen badituzte, salmenta zuzenaren bidez edo osasun-erregistroa egiteko salbuetsitako salmentaren bidez, behar bezalako identifikazioa izango dute eta kasu kasuko ekoizleen erroldan inskribatuta egonen dira, salmenta zuzenaren bidezkoak nahiz osasun-erregistroa egiteko salbuetsitako salmentaren bidezkoak izan.

Nekazaritzako ustiategiak lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzen badituzte eta osasun-erregistroa badute, Nekazaritzako Elikagai Industrien Erregistroan inskribatuta egonen dira eta eraldatzen duten lehengaiaren ekoizle direla esaten duen bereizgarri bat izanen dute. Bereizgarri horretan adieraziko da, halaber, nekazaritzako ustiategiaren izena.

14. artikulua. Praktika egokien gidak.

1. Praktika egokien gidak sortuko dira, Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak lotutako produktuen salmenta zuzenari buruzko Foru Legearen aplikazioari begira.

2. 1. eranskinean zehazten da ustiategi horiek zer jarduerak egin ditzaket.

1. eranskina

1. Fruituen eta barazkien zukuak, marmeladak eta kontserbak egitea.

2. Sagardoa, ardoa, likoreak eta pattarrak egitea.

3. Haragizko produktuak egitea.

4. Esnekiak egitea.

5. Ezta eta deribatuak manipulatu eta egitea.

6. Landare-espezieak manipulatuzea, elikaduran erabiltzeko infusioetarako eta elikaduran erabiltzeko eragile aromatiko gisa.

7. Oliba-olio birjina estra egitea.

8. Arrautzen salmenta.

Xedapen iragankorra. Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, erregelamendu bidez arautuko ditu, aplikatzeko den araudiarekin bat eta, zehazki, Europako 852/2004, 853/2004 erregelamenduekin eta horiek garatzen dituzten arauarekin bat, nekazaritzako elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloko arriskuak kontrolatzeko sistemak eta gainontzeko araudi aplikagarria, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotutako nekazaritzako produktuen salmenta zuzenerako, lege honetan ezarritakoarekin bat.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabetera hartuko du indarra.

Foru lege proposamena, lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru lege proposamena, lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa

ZIOEN AZALPENA

Gizarte eskubideetan eta norbanakoaren askatasunetan sakontzea administrazio publikoen eginkizun nagusietako bat da. Halatan, sexu-joe-ratik heldu den diskriminazio oro ekiditea eta aniztasunaren alde lan egitea helburu argi bihurtu dira.

Ez da oraindik urte asko iragan, 1990ean izan baitzen, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasunen eta bestelako osasun arazo-n nazioarteko sailkapen estatistikotik kendu zuenetik. Gure gizarteak aurrerabide handia egin du diskriminazioa ekiditeko araudia garatzean.

Hori ulertu eta sentitu dute hala estatuko nola Nafarroako erakundeek. Konstituzioak berak onartzen du 14. artikuluan "espainiarrak berdinak direla legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta".

Nafarroako Parlamentuak, 2000n, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea onetsi zuen. Legeak bikote homosexualak nahiz heterosexualak babesten ditu.

Kongresuak, 2005ean, Ezkontzeko Eskubidea-ren arloan Kode Zibila aldarazteko uztailaren 1eko 13/2005 Legea onetsi zuen, sexu berekoen arteko ezkontza ahalbidetzeko.

Kongresuak, 2007an, Pertsonen Sexuaren Aipamena Erregistro Zibilean Zuzentzea arautzen duen 3/2007 Legea onetsi zuen. Horren arabera, transexualek beren inskripzioa alda dezakete Erregistro Zibilean, eta beren sexura egokitu.

Nafarroako Parlamentuak, azkenik, Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea onetsi zuen 2009an.

Lege horiek onetsi izana aurrerabidea izan da, baina legeek ez dute beti ekartzen gizartearen jarrerak edo mentalitatea aldatzea. Gaur egun, bada, sexu bereko bi pertsona ezkon badaitezke ere, edo pertsona transexualek beren sexuaren arabeko dokumentazioa eduki badezakete ere, egiteko asko dago pertsona horiek normaltasunez bizi ahal izan dezaten beren sexu- eta afektibitate-aukera, beren afektibitatea jendaurrean libreki adierazi ahal izan dezaten eta gizartean ikusgarriak eta onartuak izan daitezen.

Berdintasun legeak gorabehera, gure gizartea ez dago aurreiritzietatik eta diskriminaziozko jarrera homofobiko eta transfobikoetatik salbu, eta, ondorioz, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektiboak badiu beharizan berezi batzuk, politika publikoen aldetik tratamendu eta zerbitzu zehatz batzuk exijitzen dituztenak.

Foru lege honek, hartara, eskubide konstituzional horretan sakontzea bilatzen du, bai eta diskriminazioa ekiditeko eta aniztasunaren inguruan herritarren kontzientziazioa sustatzeko beharrezkoak diren tresnak jartzea ere.

Esan bezala, argi dago azken urteotan hobera egin duela lesbiana, gay, bisexual eta transexualen egoerak. Baina oraindik ere, jarrera homofobak azaltzen dira zenbaitetan, eta horiek gure gizartetik errotik atera beharra dago. Askok lortu dugu orain arte eskubideen eta tratu berdinen arloan, baina asko geratzen da egiteko. "Gazte

lesbiana, gay, bisexual eta transexualak, 2009” txostenaren arabera –besteak beste, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioarekin lankidetzan egin da txostena–, gazte horien % 56,2k indarkeria pairatu dute ikastetxean, % 22k familian bertan eta inkesta egin zaien gazteen ia erdiek negatibotzat jotzen dute bere familiaren edo ikastetxearen jarrera.

Izan, bada pertsonen eta sexu-aukeren aniztasuna. Aniztasun horretan hezteak berekin ekarriko du aukera hori egiten duena askatasunez azaldu ahal izatea eta hain bakarrik ez sentitzea. Orobat lagunduko du balio demokratikoak, nola baitira askatasuna, errespetua eta berdintasuna, finkatzen.

Bestalde, foru lege honen asmoa ez da soilik lesbiana, gay, bisexual eta transexualen bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoa den tresna jartzea; legea interesgarria izan daiteke orobat departamentuen arteko koordinazioari begira.

Foru lege hau onestean, berriz, Nafarroako Parlamentuaren 2008ko otsailaren 5eko erabakia bideratzen da, Nafarroako Gobernuak premiari baitzuen orduan “laguntza, informazio eta aholkularitza zerbitzu bat berma dezan Nafarroako gay, bisexual eta transexualentzat”.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da lesbiana, gay, bisexual eta transexualen laguntza egokia eta aholkua jasotzeko eskubidea ziurtatzea, haien bizi-kalitatea hobetzea helburu, bai eta berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren aldeko politikak taxutzeko programak eta ekintzak abian jartzea ere.

2. artikulua. Bulegoa sortzea eta atxikitzea.

Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortuko da, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari atxikia.

3. artikulua. Eginkizunak eta helburuak.

Hona Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoaren eginkizunak:

1. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen, haien senitartekoei eta lagunei harrera egitea eta informazioa, aholkua eta laguntza ematea, sexu-joera eta genero-nortasunarekin lotutako eskarrietan.

a) Hasierako aholku ematea eta harrera.

b) Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Foru Legean zehazten diren eskubideen titularrei laguntza eta aholku ematea.

c) Erakunde publikoetan egin beharreko zuzenmenetan laguntza ematea.

d) Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektiboaren eskubide osoak baliatzeari lotutako laguntza, aholku ematea eta defentsa juridikoa.

e) Laguntza eta aholku psikosoziala.

f) Sexu-joeraren eta –nortasunaren onarpena, aitortzea eta autoafirmazioa sustatzeko informazioa, prestakuntza, dokumentazioa eta ikerkuntza.

g) Inguru familiar eta afektiboaren erantzukidetasuna eta lankidetzaren sustatzea, laguntza eta babes soziala ematea, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen egitatea normalizatzeari dagokionez.

2. Berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren aldeko politikak taxutzeko, Nafarroako administrazio publikoei, hezkuntza-erkidegoari eta gizarte-eragileei zuzenduak, arreta berezia jarrita lege, gizarte, hezkuntza eta kultura arloko diskriminazioari. Politika horiek ondoko helburuak izanen dituzte gutxienez ere: sexu- eta afektibitate-ereduen arteko berdintasunari laguntzea, aniztasun hori bistartzea eta jarrera homofobiko, lesbofobiko eta transfobikoak errotik ateratzea.

3. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen laguntzari eta diskriminazio-ezari buruzko programa, plan eta politika publikoen bultzada eta koordinazio orokorra.

4. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen gizarte-mugimenduekin lankidetzan aritzea, sentsibilizazio-kanpainak egitean eta aholku ematean.

5. Homosexualitatearen aukeraren normaltasunarekiko errespetuan eta eskubideen defentsan sentsibilizatzeko kanpaina berariazkoak egitea. Nafarroako Gobernuaren publizitate kanpainetan, berriz, bikote heterosexualak agertzen diren normaltasun berarekin bikote homosexualen irudiak ere agertzeko aukera aztertuko da.

4. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoaren buru koordinatzaile bat egonen da, Nafarroako Gobernuak izendatua Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak edo aniztasunaren arloko departamentu eskudunak proposatuta. Haren eginkizunak izanen dira bulegoaren jarduketak planifikatzea, koordinatzea, zuzentzea eta kontrolatzea.

2. Bulegoak behar bezala funtziona dezan pertsona bat kontratatuko da gutxienez ere administrazio eginkizunetarako, eta beste bat, berriz, gizarte-laneko edo gizarte-hezkuntzako diplomaduna.

3. Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoak berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren arloan jarduketa sektorialak egiten dituzten Nafarroako Gobernuako departamentuetako unitateen laguntza teknikoa izanen du.

4. Zerbitzu hori kudeatzean erraztuko da irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeek eta –kolektiboek, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen eskubideen defentsan lan egiten dutenek, parte hartzea. Erakunde eta kolektibo horiei entzunak zaie zerbitzu horren eginkizunak, helburuak, tamaina, egitura eta ezaugarriak diseinatzean.

Xedapen gehigarri bakarra. Aniztasunaren aldeko Mahaia sortzea.

Aniztasunaren aldeko Mahaia sortuko da, 3.2, 3.4 eta 4.4 artikuluetan ezarritakoa betetze aldera, adierazitako koordinazio-eginkizunak zehazteko eta definitzeko. Aniztasunaren aldeko Mahaia osatzerakoan aintzat hartuko dira, gutxienez ere eta besteak beste, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen elkarteak, hiesaren aurkako kolektiboa eta genero-berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteak.

Lehen xedapen iragankorra. Abian jartzea

Esku ematen zaio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariari Gizarte Gaietarako Zuzendaritza Nagusiari atxiki diezazkion, erregela-

mendu bidez ezarritako prozeduren bitartez, foru lege honetan agintzen diren eginkizunak betetze aldera beharrezkoak diren langile tekniko eta administratiboen lanpostuak; horretarako, Foru Komunitateko Administrazioiko erakunde autonomoetan eta departamentuetan dauden lanpostuak erabiliko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Eskaerari buruzko azterlana.

Balizko laguntza-eskaerari buruzko azterlan bat eginen da sei hilabeteko epean, 3.1 artikuluan xedatutakoa taxutzea helburu. Azterlan horrek lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektiboaren eskubideen aldeko elkarte batzuek egiten duten laguntza eta aholku zerbitzua jaso beharko du.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko apirilaren 15ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzekoa atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideen arloan.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako lege proposamena, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzekoa atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideen arloan.

Proposamen hori 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lege proposamena, Aurrezki kutxen eta haien elkarte nahiz batasunen araubidea hein batean aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Aurrezki kutxen eta haien elkarte nahiz batasunen araubidea hein batean aldatzeko lege proposamena.

Proposamen hori 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan toki entitateekin, Nafarroako Foru Komunitateko garraibide kolektiboaren erabilerarako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko apirilaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan toki entitateekin, Nafarroako Foru Komunitateko garraibide kolektiboaren erabilerarako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan toki entitateekin, Nafarroako Foru Komunitateko garraibide kolektiboaren erabilerarako

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmenak sina ditzan horrela eskatzen duten Nafarroako toki-entitateekin, behar diren eskualde-garraioko zerbitzuak ezartzeko edo hobetzeko, eskualde bakoitzaren beharrezan araberako, Iruñerriaren kasuan izan ezik, non ibilbideak, maiztasunak eta finantzaketa zehaztuko baitira Nafarroako beste eskualde batzuetan aplikaturiko baldintza beretan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala motel ditzan Navarra Arena kiroldegiko obrak, eta Sanferminetako Museoari buruzko jarduketa oro gelditu ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala motel ditzan Navarra Arena kiroldegiko obrak, eta Sanferminetako Museoari buruzko jarduketa oro gelditu ditzan".

Legebiltzarrak 2010eko apirilaren 15ean egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko martxoaren 5eko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdatu gabeko eskumenak eskualdatzeko prozesuaren burutzea negoziata dezan Estatuarekin.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdatu gabeko eskumenak eskualdatzeko prozesuaren burutzea negoziata dezan Estatuarekin".

Legebiltzarrak 2010eko apirilaren 15ean egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko martxoaren 5eko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ez dezan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren igoera aplikatu 2010eko uztailaren 1etik aitzina.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ez dezan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren igoera aplikatu 2010eko uztailaren 1etik aitzina".

Legebiltzarrak 2010eko apirilaren 15ean egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko martxoaren 12ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait politikaren egiturazko berrorientatzeari ekin diezaion, industria-jardueraren finantzaketa aktibatze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait politikaren egiturazko berrorientatzeari ekin diezaion, industria-jardueraren finantzaketa aktibatze aldera".

Legebiltzarrak 2010eko apirilaren 15ean egin-

mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko martxoaren 12ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.2.b). artikulua indargabetu dadin susta dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.2.b). artikulua indargabetu dadin susta dezan."

Legebiltzarrak 2010eko apirilaren 15ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko martxoaren 23ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda